

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Behin betiko onestea 19. sektorearen (Aretxabaleta-Gardelegi) plan partzialaren bederatzigarren aldakuntza

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 19. sektorearen Plan Partzialaren bederatzigarren aldaketa puntualari dagokionez, Udal Osoko Bilkurak 2015eko azaroaren 27a ondoko erabakia hartu duela jakinarazten dizut:

1. Atabarrate, SL enpresak sustatutako eta J. B., R. M. eta L. Z. arkitektoek idatzitako 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren bederatzigarren aldaketa behin betiko onartzea.
2. Arabako Foru Aldundiari Planaren kopia bat igortzea (gordailatzeko), eta 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren bederatzigarren aldaketari buruzko erabaki hau ALHAO aldizkarian eta tirada handieneko egunkarietako batean argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik.
3. (Aretxabaleta-Gardelegi) 19. sektoreko hitzarmen-batzarrari eta Aretxabaleta eta Gardelegiko administrazio batzarrei erabakiaren berri ematea
4. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko azaroaren 30ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE